

Joxe Iriarte, *Bikila*

## Inposaketa(k)

**D**uela gutxi arte, *inposaketa* hitza, ezker abertzalearen eta ezker muturrekoen hitz totemikoa genuen. Borrokarako akuilu. Arazoak arazo, gaiak gai, sistemak edo beren aldeko instituzioetatik inposatzen ziguten oro salatzeko erabiltzen genuen hitza. Alabaina (ez dakit noiz arte), nola aldatzen diren gauzak! Gipuzkoan immobilisten ikur bihurtu da.

Bestaldetik, merezi du hitza aipatzeak, eztabaida horrek duen garrantzia kendu gabe, harritzekoa da zer-nolako garrantzia eman dioten gaiari, gatazka –edo arazo– guztien ama bailitzan! Eztabaida horretan, oposizioak inposatzailetzat jotzen du Foru Aldundiaren plana. Harrigarria benetan, urtetan, Batzar Nagusien aldean Diputazioa ia hutsaren pare bihurtu zutenak (batzarkide nintzeko garaia gogoratzen dut, Batzar Nagusiek A-8 autobidearen bidesariaren alde bozkatu zutela, baina PNVren eskuetan zegoen Diputazioak ez zuen aintzakotzat hartu. Agintearen makila eskuz aldatu delarik, hortik komeriak) eta herri galdeketa ez entzun ere nahi ez zutenak, haserre bizian kontrako bidean aldarrika ikustea orain. Memoria interesatua baita. Nolabait, ahaztu egin dira AHTri buruzko herri galdeketa antolatzeagatik ezker abertzaleko zenbait alkate epaituak izan zirela PSOE agintean zegoelarik. Hots, inposaketa hitza, nork modu oso interesatuan erabiltzen du, beti bere ideologiaren arabera.

Nik ez daukat duda izpirik eztabaida horretan zeinen aldean dagoen zuzentasuna. Trikimailuak alde batera utzita, ziur nago, eztabaida garbi batean erraz demonstratu daitekeela, egungo Diputazioaren hondakin plana, Errauskailuan oinarritutakoa baino askoz garbiagoa, merkeagoa (427,5 milioi euro erraustearen kostua, erdia Aldundiaren plan osoa) eta gainera osasunaren aldetik hobea. Denok dakigu ere, oposizioa eta atzean dituzten indar ekonomikoak (*El Diario Vasco* propaganda



DANI BLANCO

tresna eraginkorra alde dutelarik) zer-nolako esamesak eta gezurrak (hori bai zabor kirasduna!) ari diren zabaltzen. Ni Oiartzunen bizi naiz, eta zin dagit, atez atekoa, eroso, garbia eta txukuna da, eta gainera, nor bere zaborren arduraren jabe izatea bultzatzen duen sistema. Hasieran ozenki protestatu zutenak egun isilik daude, kontra egiteko argudiorik gabe.

Nolako helburua halako bidea! Alabaina, nik uste, mamiz eta formaz, ezkerrekoak, demokrazia azken mugaraino bultzatu behar dugula. Inhabilitazioaren arriskuari aurre eginez AHTri buruzko galdeketa antolatu zuten alkate haiek bezala. Eta, edozein arrazoi delarik, herritar talde handi batek galdeketa antolatzea eskatzen badu, onartu ez ezik, gauzatzeko bidea abian jarri behar da. Hori bai, eta zilegitasun guztiz, gainera, ondo antolatua izateko behar den denbora hartuz. Esate baterako, hurrengo udal eta foru hauteskundeetan, modu paraleloan baina batera gauzatuz. Ateratzen dena ateratzen dela, guztiak onartuko dutela alde zurretik baieztatuz! Errauskailuarekin ez bezala (eraikita jai) Aldundiaren planak badu atzera bueltarik. Egungo oposizioak irabaziko balu bere esku legoke Hondakin Plan berria bertan behera uztea. Dena den, Katalunian 10 urtetan atzera bota duena (atez atekoa) udal txetxe bakarra izan da.

Hots. Ez lirerateke izango lehenengo hauteskundeak, zeinetan hautaketa arruntak eta bide batez galdeketa bereziak egiten diren. Bi hautestontzi desberdin, eta galdeketa garbia, besterik ez da behar. Hala eta guztiz ere, azpimarratu beharrekoa hau da: kontsulta garrantzitsua izanik, parte-hartze prozesua ezinbestekoa da, eta hau aurrenekoz historian (hondakinen gaian) atez ateko sistemak bideratu du, Usurbilen (kontsulta eta guzti), Hernanin, Oiartzun-en edota Antzuolan. ■

Oiartzunen bizi naiz, eta zin dagit,  
atez atekoa, eroso, garbia eta txukuna  
da, eta gainera, nor bere zaborren  
arduraren jabe izatea bultzatzen duen  
sistema. Hasieran ozenki protestatu  
zutenak egun isilik daude,  
kontra egiteko argudiorik gabe

